

ORDENDANTZA FISKALA, AGIRIAK LUZATU ETA TRAMITATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

Xedapen orokorra

1. artikulua. Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

Zergaia

2. art. Alderdi batek eskaturik, udal administrazioak edo udal agintariek beren eskumeneko dokumentuak eman edo tramitatzeagatik sortu udal jarduerak eratzen du zergaia.

Ordaindu beharra

3. art. Ordaindu beharra sortzen da norberaren intereserako, udal administrazioak edo udal agintariek euren eskumenekoak diren edo izan behar duten edozein agiri ematea eskatzearekin.

Sujetu pasiboa

4. art. Udal administrazioak edo udal agintariek ematen dituzten edo beren eskumenekoak dituzten agiriak eskatu, sortarazi edo haien onura jasotzen duten pertsona natural nahiz juridikoak dira sujetu pasiboak.

Tarifak

5. art. Ordenantza hau arautuko duten tarifak honako hauek dira:

1. Eskabideak eta agiriak.

a) Edozein udal agiriren kopiak edo fotokopiak. Folio bakoitzeko, 10 pezeta (A4) eta 25 pezeta (A3).

b) Arma txartelak tramitatzea: 100 pezeta.

2. Ziurtagiriak

a) Udal bulegoek agiritegian kontsultatu beharreko dokumentu edo datuei buruz ematen dituzten ziurtagiriak, 500 pezeta. Gainerako ziurtagiriak, 250 pezeta.

b) Beste edozein motatako ziurtagiriak, 250 pezeta.

c) Agirien konpultsak: 100 pezeta.

Kudeaketa eta dirubilketarako arauak

6. art. 1. Tasa sortuzat hartuko da dokumentua Udalaren erregistro orokorrean aurkezten denean eta udal bulegoetan ordenantzapeko eskabiderik ez dokumenturik ez da hartuko ez eta tramitatuko ere aldez aurretik ez bada ordainketa egin.

2. Udal zigiluaren itzulketa behar duen dokumenturik ez da luzatuko dokumentua ematen duen funtzionarioak betekizun hori bete ez badu.

Aurrekinak bilatzeko eskaera orok tasa sortuko du emaitza negatiboa bada ere.

7. art. Udal administrazioaren dokumentu eta berriemateen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorraren ardura duten funtzionarioek emanen dituzten udal zigiludun agiri guztiak zenbatuko dituzte eta udal diruzaintzan egunero dirusarrerak, dagozkien likidazioekin egingen dituzte.

Arau-hausteak eta zehapenak

8. art. Udal administrazioaren dokumentu eta berriemateen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorraren ardura duten funtzionarioak eta udal diruzaintzaren langile arduradunak izanen dira iruzurraren erantzule. Iruzurra indarra duten xedapenetan aurreikusitako eran zigortuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, Ordenantza Fiskal Orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.